

ANES EZ DA ANE

Arana-Goiri'tar Sabin'ek atera zuen bere garaian Euskal Izendegi bat. Santuen izenak ziran euskera-antzeria ipiñita. Esate baterako: Anastasio Anastasi.

1972'garrenean J.M. Satrustegi'k beste bat Euskalerrri'ko idaztietan arkitzen direnak.

Gaurko egunez, berriz, izaki osoaren izenak jarri dizkiete gurasoek euren umeei: Aizea, Itsaso, Lur, Arri, Arkaitz, Ibai eta bestelako izan xeblebre guztiak. Orretan askatasun oso-oso dago bai Rizaren aldetik eta bai Udal-etxeen aldetik; baña, ni orain 81 urte jaio nintzanean ez zan orrelakorik: Elizako santuen izenak bear ziran, nai ta nai ez.

ANES izena lekitarrek erabiltzen zuten eta oso zan ezaguna Lekeitio'ko kaletan 1.912'garren urtean, Eustakio'k bere lenengo aurriz izan zuenean. Berau Sabin'en jarraitzailea zan eta bere semeari euskal izena ipiñi nai zion. Itzegin zuen bere emaztearekin eta, Anastasio'ren ordean (nere amaren aita), ANES ipintzea erabaki zuten.

Joan zan Eustakio eleizara eta ori ez zala santuen izena, bota zion aurpegiara txanburuak. Andik Udal-etxera abiatu zan; baña, alperrik. Emen ere berdin erantzun zioten: Ori ez zala ume bateri ipintzeko izena.

Eustakio'k, ordean, bere astuari arren: Au neure semia dok eta neuk nai dodan ixena ipiñikotzat. Baita ipiñi ere: Sekulan, jaio nintzen egunetik eurok il ziran egunerarte, neure gurasoen agoetik ez det ANES beste zenik entzun. Nere senitarte guztian ez zekiten nik beste izenik nuenik ere. Bada gure artean Anastasio bat (Albisu Ayerdi), ni baño iru urte gazteago, eta izen ori berak eramandu beti, nik neurea eramandu dedan bezala.

Nik paperak bear izan nituen artean, ez nuen jakin neure paperetako izena ANASTASIO (ANASTASI) zanik ere. Apaiztu ninduean, Meza berriko txartelatan Anastasio izena ikustean, arriturik galdetzen zidaten: -I ez al aiz ba Anes?

Nere izenaren okerkeriak ez dute amairik. Orain ogei urte inguru, Anes Lazkuko ezizenakin lanak argitaratzen nituean, nere OTO TA POTOTO'tik, txiste bat aukeratu zuen irakurgai Zarautz'ko Ikastolak eta izena ANE bihurtu zidaten: Ane Lazkuko. ZER, gure aldizkari jatorrean ere, aldi batean Ane Arrinda izenakin zuzentzen zidaten ale bakoitza. Eusko Jaurlaritzak bialtzen dituen BERRIPAPERA oietan ere AÑE ARRIÑDA nintzan. Zuzentzeko esan eta gauzatxo batzuek zuzendu zituzten, baña izenik ez, ANE ori or zegoen zutik. Bigarren mezua bialdu nien; alperrik. Irugarrenean Anes izenari, "apaiza" irantsi nion eta oar auxe: Zalantzarik ba'dezute galdetu Mari Carmen'eri, izan orretxekin eazgutzen nau aspaldiko urteetan. Irugarrenak belio izan zuen. Okerrak ez dute etenik: TXO, itxasgizonen aldizkarian, nik idatzitako Lekeitio'ko kanta batzuek artu dituzte gure EUSKERAIZAINTZA aldizkaritik, eta berriro, AÑE ARRINDA...

Onak ez du amaierarik. Orrelako izen aldrebesa al da ANES? Bada izen orrekin mutiko bat Deba onetan eta bere amari galdetu nion, zergaitik ipiñi zion Anes izena bere semeari. Euskal buruzagiren bat ote zan edo, erantzun zidan; baña, gauza garbirik ez zekien. Erruki diot. Nik eskari au: Nere giza-izakia ez aldatu, mesedez. Emaztekiak izaki xarmantak dituzu; baña, ni ez naiz emaztekia.

Ekainillak 26.1993

Arrinda'tar ANES